



Jon Andoni Zarate Zarraga
Merkataritza zuzendaria
Merkataritza eta Turismo Sailburuordetza
Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saila

Jaun hori,

Merkataritza Jardueraren Legea laugarrenez aldatuko duen Lege Aurreproiektuaren berri jaso genuen bide telematikotik Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan iragan maiatzaren 13an, gaztelaniaz, Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Saileko Merkataritza Zuzendaritza horretatik bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren 22.l) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Merkataritza Jardueraren Legea laugarrenez aldatuko duen Lege Aurreproiektua aztertu ondoren, egungo hizkuntza araudia urratzen ez duela adierazten dut.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutua onartu zuen abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak xedatzen duenez, autonomia erkidegoak bakarreko eskumena du barne merkataritzaren alorrean (10.27 artikulua).

Eskumen horren babesean onartu zen maiatzaren 27ko 7/1994 Legea, merkataritza jarduerari buruzkoa, gerora azaroaren 10eko 7/2000 Legeak aldatu zuena.

Otsailaren 22ko 33/2005 Dekretuak Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza ordutegiak arautu zituen.

Ekainaren 25eko 7/2008 Legeak bigarrenez aldatu zuen Merkataritza Jardueraren Legea, eta apirilaren 23ko 7/2012 Legeak, barne merkaturako zerbitzuei buruz Europako Parlamentuak eta Kontseiluak abenduaren 12an emandako 2006/123/EE Direktibara egokitze aldera zenbait lege aldatzekoak, hirugarrenez aldatu zuen maiatzaren 27ko 7/1994 Legea.

Estatu mailako araudiari dagokionez, abenduaren 21eko 1/2004 Legeak merkataritza ordutegiak arautu zituen, ordutegi araubide berezia duten establezimenduak arautuz 5. artikuluan.

Uztailaren 13ko 20/2012 Errege Dekretu Legeak aurrekontu egonkortasuna bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko neurriak ezarri zituen. Bere 27. artikulua bitartez aldaketak egin zituen abenduaren 21eko 1/2004 Legean, besteak beste idazketa berria emanez 5. artikuluari. Artikulu honen laugarren paragrafoari jarraiki, autonomia erkidegoek, udalek proposatuta, euren eremuko turismo eragin handiko guneak zehaztuko dituzte, udalerrri osoak edo udalerrri zatiak izan daitezkeenak, eta bertan hainbat motatako establezimenduek erabateko askatasuna izango dute irekita egongo diren egunak eta orduak finkatzeko. Artikulu bereko bosgarren paragrafoaren arabera, 200.000 biztanletik gorako udalerrietan, aurreko urtean 1.000.000 ostatu-gau baino gehiago izan badituzte, edo turismo itsasontziak hartzen dituen portua edukita aurreko urtean 400.000 bidaiari baino gehiago jaso badituzte, turismo eragin handiko gune bat behintzat izendatuko da.

Orain izapidetzen ari den Lege Aurreproiektuaren bidez merkataritza jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legea aldatuko da, laugarrenez, hizkuntzen erabileraren ikuspegitik garrantzirik gabeko aldaketak izanik.

Lege Aurreproiektuaren lehenengo artikulua bidez xedapen gehigarri berria erantsiko zaio maiatzaren 27ko 7/1994 Legeari, turismo eragin handiko guneen izendapenari buruz. Bertan jasoko denez, baldintza batzuk bete behar dituzte horrelako guneek, udalek proposamen arrazoitua aurkeztuko diote merkataritza gaitan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako Sailburuordetzari, eta honek ebazpena emango du, gunea izendatuz edo ez.

Lege Aurreproiektuaren bigarren artikulua bidez xedapen gehigarri berria erantsiko zaio maiatzaren 27ko 7/1994 Legeari, baimena emango diona Eusko Jaurlaritzari legea garatuz merkataritza ordutegiei buruzko erregelamendu xedapenak eman ditzan.

Azkenik, Lege Aurreproiektuaren azken xedapenaren arabera legea Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Bestalde, moldatuko den merkataritza jarduerari buruzko maiatzaren 27ko 7/1994 Legean ez dago hizkuntza aipamenik.

Kontuan izan behar dugu maiatzaren 27ko 7/1994 Legean araututako merkataritza jardueraren bitartez ondasun eta zerbitzuak eskaintzen direla, eta horien jasotzaileak kontsumitzaile eta erabiltzaileak direla. Zentzu honetan, Kontsumitzaileen eta Erabiltzaileen Estatutua onartu zuen abenduaren 22ko 6/2003 Legearen II. Tituluko VII. Kapituluan kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak arautzen dira.

Horregatik, uste dugu kontsumitzaileen eta erabiltzaileen hizkuntza eskubideak aipatu behintzat egin beharko lirakeela Euskal Autonomia Erkidegoko merkataritza jarduera arautzen duen lege batean. Ildo honetan, abenduaren 22ko 6/2003 Legearen 42. artikuluan jasotzen den sustapen-jarduketa publikoa eredu izan daiteke.

Beraz, aztergai dugun Lege Aurreproiektuak euskararen erabileraren normalizazioari begira eragin positiboa izan dezan, bere bitartez maiatzaren 27ko 7/1994 Legearen 49. artikuluan paragrafo berria txertatzeko proposatzen dugu, eduki honekin:

-Halaber, Eusko Jaurlaritzak kontsumitzaile eta erabiltzaileei ondasun eta zerbitzuak eskaintzen dizkieten merkataritza jardueren eremuan euskara erabil dadin sustatzeko egoki ikusten dituen neurriak hartu eta beharrezko bitartekoak jarriko ditu eskura.

Adeitasunez,

Gasteizen, 2014ko maiatzaren 15ean

Jokin Azkue Arrastoa
Euskara Sustatzeko zuzendaria¹

¹ Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria ez egoteagatik, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezarri zuen apirilaren 9ko 193/2013 Dekretuaren lehenengo xedapen gehigarrian jasotakoaren arabera